

ETAren su-etenik gabe ere hitz egin behar dela uste du Elkarrri-k

Irlandako prozesuaren ondorioz Euskal Herriko auzia nazioartekotu egin dela dio

Irlandako bake prozesuak bi «mito» hautsi ditu Euskal Herrian Elkarrri-ren ustez: «ETAren su-etenik gabe ezin dela hitz egin, eta erdibideko akordioak ez direla posible pentsatzea».

PANTXIKE AGIRRE / DONOSTIA

Elkarrri-k aldizkaria kaleratu du eta lehenengo zenbakia aurkeztu zuten atzo Donostian elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte mugimendu horretako ordezkariak. Irlandako bake prozesuaz mintzatu zen Jonan Fernandez bozeramailea, eta Euskal Herrian duen eragina «erabakigarria» dela esan zuen alde guztiei egiten dielako presio.

Bere irudikoz, ETAren hitz egitea beharrezkoa da, baita aurrez su-etenik ez badago ere. Izan ere, su-etenik gabe ezin hitz egin delako ideia mito hautsi egin du Irlandako bake prozesuak, Elkarrri-ko ordezkariaren ustez. Hautsi den beste mito «erdibideko akordioak ez direla posible pentsatzea» da, Fernandezek esan zuenez. «Erdibideko akordioekin» bake prozesuak azkartu egin daitezke bere ustez, eta lantzen diren bitartean aldean arteko elkarrizketek aurrera egin dezakete.

Irlandako bake prozesuaren ondorioz, Euskal Herriko auzia nazioartera hedatu dela uste du gainera Jonan Fernandezek: «Komunikabideak eta nazioarteko komunitatea Europako Batasunean eta oro har mundu ga-



Elkarrri-k aldizkari bat kaleratu du eta atzo aurkeztu zuten lehen zenbakia.

A. GILLENEA

ratuan dagoen azkeneko gatazka biolento gisa erreparatzen hasi dira gureari». Horren eraginez, Euskal Herria arreta bereganatzen ari dela eta gatazkari konponbidea bilatzearen alde «presio arin eta ahula sortzen» ari dela uste du.

Elkarrri-ren iritziz, Irlandako prozesuan eta Euskal Autonomi Elkarte hauteskundeetan alderdi gehien ahotan izan den diskurtsoa «trantsizio epe baten adierazgarri» dira. PPz beste alderdi guztiak elkarrizketaren, distentsioaren eta akordioaren beharraz mintzatu direla nabarmendu zuen Jonan Fernandezek.

Aldi berean, alderdi askok HBrekin debateetan parte hartu nahi ez izatea kontraesankorra eta «errua» izan dela uste du, baina horregatik hauteskundeetan esandako horiek Elkarrirantz «interesgarriak» eta kontuan hartzeak izango direla esan zuen.

Hauteskunde emaitzek apenas ekarri duten aldaketarik Elkarrri-ren ustez, eta egoera politikoak «blokatu» jarraitzen du. Hala ere, «ziklo politiko bat amaitzen» ari dela eta «konponbidea ekarriko duen fase berri baten atarian» gaudela esan zuen Fernandezek.

ELKARRI-REN ALDIZKARI BERRIA Elkarrri-ren aldizkari berria

«Herrigintzan» kanpainaren barruan sartzen da. 10.000 aleko tirada du eta 150 pezetan jarriko da salgai. Lehen zenbakiak inkesta bat darama, eta emaitzak dagoeneko hainbat herritan martxan jarri diren eztabaidetan erabiliko dira. Zentsutik hautatzen ditu Elkarrri-k hainbat pertsona eztabaida talde horiek osatzeko, moderatzaile herriko pertsona ezagunen bat delarik. «Herrigintzan» kanpaina honen helburua herritarren bake proposamenak biltzea da, «makroinkesta» batean jasotzeko.

'Amnistia orain' lelopean presoan aldeko manifestaldia gaur Baionan

HUR GOROSTIAGA / BAIONA

Errepresioaren Kontrako Batzardeak (EKB) Presoen Asteko ekitaldien kariatat, 'Amnistia orain' lelopean eginen den manifestaldia antolatu du gaurko. Manifestaldia Baionako Euskaldunen plazatik abiatuko da arratsaldeko lau t'erdietan, eta Baionako hainbat karrikatik igaro ondoan Herriko Etxean bukatuko da. Errefuxiatu eta Presoen Sustengu Komiteak eta Herriaren Alde-k egina dute dagoeneko manifestaldia sustengatzeko deia.

Urtero bezala, Presoen Astearen egun ohi den manifestaldiaren leloa aurten ere 'Amnistia orain' izanen da. Ande Sainte Marie EKBko bozeramailearen arabe-

ra, «amnistia orain sekulan baino gehiago aktualitatean den gaia da eta presoaren egoera konpontzeko, oro har harturik, aterabide bakarra da». Gisa berean, Ande Sainte Mariaren ustez «errepresioa ez da inolako aterabidea Euskal Herriaren normalizaziorako bidean».

Hala ere, gaurko manifestaldiak eta bereziki Presoen Asteak «izaera berezia» dutela aitortu du Sainte Mariek. «Nahiz eta ez dugun EKBn aterabide pertsonalik bilatzen, Gabi Mouescaren kasuari arreta berezia eman behar diogu». Prebentzioko kartzelaldian 11. urtea betetzen ari da egun Gabi Mouesca, oraindik dosierra itxi gabe baitauka. Ondorioz hamaika urte horiek presondegi arruntean pasatu ditu,

«egoera krudelean», denbora luze zeko presoek dagokien presondegi zentralera eraman ordez. Ande Sainte Mariek azaldu duenez, «gaur egun Frantzia osoko preso guztien artean, hiru bertzerik ez dira horrelako egoera jasaten ari diren presoak, 11 urtez afera bera instrukzioan dutenak dosierra itxi gabe eta presondegi zentralera joan gabe». Sainte Mariaren hitzetan, «boteredunek nahitara egina dute Gabi bahitu gisa atxikitzeko, dosierra itxi gabe dagoen bitartean ezin baitu baldintzapeko askatasunik galdegin ez eta presondegi egokiago batera joan ere».

Presoen Asteari dagokionez, ostegun arratsean egitekoa zen Irlandari buruzko eztabaida ber-



Gabi Mouesca.

tan behera gelditu zen, Floren Aoz Herri Batasunako kideak, gonbidatuetako bat, auto istripua izan baitzuen Baionarako bidean, larritasunik gabe. Horrez gain, bart Toberak ziren egitekoak Heletan, eta bihar Presoen Eguna ospatuko dute Makean.

Grenet ez da Baionako udal hauteskundeetara aurkeztuko

H. GOROSTIAGA / BAIONA

Jean Grenet Baionako auzapezorde eta egun auzapez den Henri Greneten semeak, heldu den ekainean Ipar Euskal Herrian egingo diren udal hauteskundeetan Baionako auzapez izateko ez aurkeztea erabaki berri du. Berak azaldutako arrazoia, UDF eta RPR alderdien sostengu eskasa da.

Inor gutxi espero zuen halako erabakia. Alain Lamassourek joan den astean udal hauteskundeetara ez aurkezteko erabakia hartu zuela azaldu eta Jean Greneten hautagaitza lagunduko zuela argi geratu ondoren, azken honek Baionako Herriko Etxeko auzapez izateko bidari uko egitea ezusteko handia izan da.

Jean Grenetek berak azaldu duenez, «Baionako Herriko Etxeko auzapeza izateko aurkezteko UDF eta RPR alderdien sostengu osoa nahi» zuen, batez ere Baionako eskualdean. Baina arazoa da Baionako eskualdekoek ez diotela inolako sostengurik adierazi, ezta Parisko UDF eta RPRko ordezkariaren taldeek ere. Kontuan izan beharra dago Jean Grenetek egun, bere burua UP-Fko kideztat daukala; hots UDF-RPR alderdien baitan, eta horregatik Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseilu Nagusian RPRko kide gisa aurkeztu bada ere, Parisko Asanblea Nagusian UD-Fko postua betetzen du, Alain Lamassourek ministro izateko utzitakoa.

Azken erabakia ote? Berak baietz dio ez duela «egur bustiaren gainean» aritu nahi «lagunen ordezer arerioak» izan ditezkeenekin.

'Sud Ouest' egunkarian medikuak azaldu duenez, «nire klinika eta nire bezeroak baditut eta ez dut zertan politikan aritu behar». Hala ere ekainera bitartean gauza anitz gerta daitezke.

Grenet semeak «Baionako eta Parisko instantzia politikoei ondorioak jasan beharko dituztela» erran zuen eta Maurice Touratonek —lehen Grenet senideen alboan izan zenak eta arazoak direla medio alde egin zuenak— eta Nicole Peryk —Alderdi Sozialistako hautagaiak— eskuak igurtzi eginen dituzte.